

www.noaia.com

# Noaia !!



Goiz datoz aurtengo  
San Juan festak



Itoitz Rodriguez Errondosoro

Atletismoan  
markak hausten



Herri osoa enteratuko da...  
Zure publizitatea hemen



Kontsulta itzazu publizitate-tarteen prezioak

943 360 321 [publizitatea@noa.com](mailto:publizitatea@noa.com) [www.noa.com](http://www.noa.com)

**JORGEMEDIUM.COM**



Kaixo, albiste zoragarri baten berri eman behar dizuet, San Juan jaia ospatzen denez Jorgemedium.com igarlea Usurbilen egongo da ekainaren 23an eta 24an, tarot kontsultak eta terapia alternatiben aholkuak ematen. Beste mundutik haratagoko mezuak ere transmitituko ditu. Besarkada handi bat eta zuen zain geratzen naiz.

**HITZORDUA ESKATZEKO : 699 87 05 77**

**EKAINAK 15**, Ostirala 19:00tan Usurbilgo frontoian kartulina eskuratzeko aukera. Zatoz!

**EKAINAK 17**

10:30 - 11:00 Musika eta eskulanak

11:00 - 11:30 Pirritx, Porrotx eta Marimotots

11:30 - 12:00 Bertsolariak, antzerkia, musika...

12:00 - 12:30 Mosaikoan kokatzea



**AIRE GARBIAK** *bira nazar*  
**Mosaiko erraldoia**

DONOSTIA-SAGUES  
**EKAINAK 17**

Albisteak iruditan!!

## San Lorenzo mendian gora, lainoan

**A**ndatza Mendi elkarteak antolatutarik, 21 lagun abiatu ziren Ezkarai aldera. Argazkia eta kronikatxoa bidali digute: "Lehen etapa San Millan de Cogollatik Ezkaraira izan zen eta eguraldi apartak lagundurik, bazter ederrak ikusi ziren. Esan behar, euskararen eremuaren aztarnak bazeudela ibilbidean: Larrizabala, Sagastia, Zaldierna, Zorrakin, Ezkarai (= aitz garai)..."

Igandeko etapa Ezkarai herritik San Lorenzo (2.271 m) mendira bitartekoa izan zen: 5 ordu t'erdiko ibilbidea. Hasierako gunea pagadi batetik igaro ondoren, mendi lepoetatik sigi-saga ibiliaz lainoan iritsi ziren gailurrera. Ozta-ozta argazkia ateratzeko beta hartu eta herrira jaitsi ziren indarrak berritzera".



GAILURREAN ARGAZKI HAU ATERA ZUTEN. 21 LAGUN IZAN ZIREN BERTAN.

## Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	DYA	943 464 622
Atez ateko bulegoa	943 369 113	Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Gurutze Gorria	943 272 222
Udaltzaingoa	943 361 112	Etumeta AEK Euskaltegia	607 609 379	Emergentziak	112
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Kalezar Egunekeo Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Gure Elkarte Zahar Egoitza	943 371 751	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Bake Epaitegia	943 372 336	Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Udarregi Ikastola	943 361 216	Taxia (Angel)	607 928 770	Banco Popular Español	943 370 411
Haur Eskola	943 374 061	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466	BBVA	943 377 155
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Eusko Tren	943 470 976	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Hastapen tailerrak	943 360 465	Anbulategia	943 362 013	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
KzGunea	943 023 684	Oa botika	943 376 076	Telefonica	1004
Oiarde Kirolegia	943 372 498	Iturralde botika	943 363 395	Euskaltel	900 840 840

**Noaua!!**

NOAUA! Kultur Elkarteak Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil 943 36 03 21 / elkarte@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua. Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda. Idazkaria: Aizpea Aizpurua. Publizitatea: Bea Alda, publicitatea@noaua.com.

Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Aizpea Aizpurua. Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola, Ainara Arnaiz.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbietta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregerai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale. Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818. Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



IMANOL UBEDA

## Ikusgarritasunaz eta sormenaz hitz bi

Aurreko batean, mahainguru batean partehartzeko deitu ninduten. Larrabetzun, Literaturia izeneko jardunaldien baitan, mintzagai honen bueltan: "Zergatik ez da euskal kulturgintza ikusgarri komunikabideetan?". Ander Iturriotz soziologoa eta Euskal Idazleen Elkartearen lehendakaria, Lorea Agirre kazetaria eta irakaslea eta ni neu izan ginen deituak.

Ez dakit zer arraio ikusi zuten nigan. Auskalo. Baina tartean lagunak ere badituzte herri hartan eta, badakizue, lagunak ezin ezetz esan.

Solaskideak kategoriazkoak izanik, lasai abiatu nintzen Larrabetzu aldera, sikiera entzutea. Behin mahaingurua hasita, tajuzko zerbait esaten ere saiatu nintzen. Inoiz ez naiz kategorikoekin ondo moldatu eta hondamendia besterik ikusten ez duten horiekin, are gutxiago. Azken 30-40 urteak ez direla alperrik pasa adierazi nuen lehenik eta behin. Norberak bere errealitatea bizi duela eta ni elikatzen nauten hedabideetan, euskal kultura delakoa ondo zaindua ikusten dudala: Berrian, Argian, Euskadi Irratian, herri hedabideetan...

Baina jakin badakit oraindik lan asko dagoela egiteko. Eta mahainguruaren izenburuari buelta emateko proposamena egin nuen: "nola egin euskal kulturgintza ikusgarriago izan dadin?".

Galderak, gainera, badu beste subjektu garrantzitsu bat bere baitan, hedabidea. Eta euskal hedabideen etorkizunaz oso kezkatuta nengoela aitortu nien. "Nola egin indartsuago euskal hedabideak, euskal kultura ikusgarriago izan dadin?", hara, mahaingurutik etxera bidean bururatu zitzaidan galdera.

Ikusten duzuen moduan, erantzun argirik ez eta bestelako galderak planteatu nituen nik. Horiek izan ziren nire ekarpenak. Beste baterako, beraz, badakite. Beste baten atean jo beharko dute, nirean erantzunik apenak aurkituko dute-eta.

Bien bitartean, denbora horrelakoetan ematen dugun bitartean, sortzaileen errota ez dago geldi. Garaiak txarrak izan arren, badira proiektuak, egitasmoak, ideiak... Gure jakinmina eta zaletasuna asetzera etorriko direnak.

Supernova proiektua gauzatzeko, Kerobia musika taldeak crowdfunding formulari heldu dio. Finantziario kolek-

tibo bidezko kanpaina da. Web orrialde baten bitartez, diru ekarpen bat egiten da eta, horri esker, taldeak bere egitasmoa gauzatzeko baliabideak eskuratzen ditu. Kerobiak 1.000 laguneko ekarpena behar du disko berria plazaratzeko. Lerro hauek idazterakoan, 643 ziren izena emanda zuzendak. Ekainaren 30ean amaituko da ekarpenak egiteko aukera. Zer eskatzen du taldeak? 29 euro. Horren truke zer? Ba diru ekarpena egin duenak CD luzea, DVDa, edukien liburuxka eta Supernovaren inguruan egingo den muralaren zati bat jasoko du.

Fermin Muguruza ere antzeko saltsetan dabil murgildurik. Zuloak proiektua gauzatzeko, Kerobiaren formulari jarraitu dio. Antza, bizitza laburreko taldea izan zen Zuloak izeneko neska taldea. Eta proiektu hari buruzko dokumentala egiten hasi da Fermin Muguruza. Areto komertzialetan emititzeko akordioa adostua du dagoeneko, baina emititzen hasi baino lehen, dokumentala amaitu beharra dago. Eta finantziario premian da Irungo kantaria. Finantziario kolektibo bidezko kanpaina bat jarri du martxan. 50 euroren truke, hau jasoko du izena ematen duenak: Zuloak kamiseta, soinu-bandaren CD-a, DVD-a eta kredituetan zure izena azaltzea.

Uztailaren 7an amaituko da izena emateko epea. 600 ekarpen jaso nahi dituzte eta oraingoz 158 dira animatu direnak.

Kerobia, Fermin Muguruza eta beste euskal sortzaileen babesle handienetakoak Egunkaria (modu bidegabean itxi egin zuten arte) eta Berria izan dira.

Berria ere, laguntza premian da. "Zure ziztada behar dugu" jarri dute martxan. Hilean 10 euro, urtean 100 euro, urtean 200 euro edo aukeran ere, beste kopuru bateko ekarpena egin diezaiokizu Berria Hedabideen Fundazioari.

Horrela daude gauzak. Nola egin ikusgarriago galderari erantzunak bilatzen dizkiogun bitartean, sortzaileek lanean jarraitu nahi dute; sortzaileak laguntza premian dira. Sortzaileen babesleek ere (euskarazko hedabideak, alegia) lanean jarraitu nahi dute; eta sortzaileen babesle horiek ere laguntza beharrean dira.

Nola edo hala, moldatu gara egitasmo hauek guztiak babesten. Iritsiko dira gehiago baina poltsiko honek ez dakit gehiagorako emango duen. Eta zureak?

Imanol Ubeda - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregerai

Okindegia-Gozotegia  
LABE-GOXO

**TAXI 24h**  
Jose Etxabe USURBIL  
677 37 34 66  
943 36 21 78

**JE JON ELORZA**  
IGELTSERITZA  
OROKORRA  
Obrak eta erreformak  
**661 804 688**  
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

# Igandeko mosaiko erraldoia eraikitzeko, kartulinak eskuratzeko azken aukera ostiralean

**D**onostiako Saguesen Errausketaren aurkako aldarrikapen festa antolatu du Gipuzkoa Zero Zabor bilguneak, iganderako, ekainaren 17rako. Goizeko 10:00etatik aurrera, musikariak, bertsolariak edota Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak bertan izango dira. 12:30erako dago deitua ordea, eguneko ekitaldi nagusia.

Haize errota koloretsu baten irudia izango duen mosaiko erraldoia eraiki nahi dute, baina herritarren laguntzaz. Horretarako, aldezturik koloretako kartulinak eskuratu behar dira. Materiala lortzeko ostiral honetan egongo da azken aukera.

## USURBIL ZERO ZABOR

“Zaborra sortu eta tratatzea baino hobea da prebentzioan ahalegin guztia egitea”

Usurbil Zero Zabor taldeak kartulinak banatzeko mahaia jarriko du, 19:00etatik aurrera plazan. Bestalde, igandeko hitzordua gerturatu ahala ugaritzen doaz GZZ-eko ekimenaren aldeko atxikimenduak. Usurbilgo Itunak bakarrik ez, osasun arloan lanean diharduten hainbat profesio-



OSTIRAL ARRATSALDEAN MAHAIA JARRIKO DA KARTULINAK BANATZEKO.

nalek ere bat egin baitute, GZZ-koen ekimenarekin, errauste planta proiektua bertan behera uztea eskatzearekin batera. Kaleratu duten oharrean osasungintza eta hondakinen kudeaketa parekatzen dituzte. Osasungintzan gaixotasunak sendatu baino prebentzioa bideratu behar duten moduan, “zaborra sortu eta tratatzea baino hobea da prebentzioan ahalegin guztia egitea, zaborrik ez sortzeko, errausketa bezalako tratamendu toxikoak ekiditeko. Hondakinen prebentzioan inbertitzeak osasuna babestea esan nahi du”. Igandean bestalde, ekainaren 17ko hitzorduari atxikimendua adierazteko, zenbait herritar eta herri

eragileetako ordezkariak taldeko argazkia atera zuten frontoian.

## GZZ: “Plana oso ona da”

“Plana oso ona da, ingurumen ikuspegitik, ekonomia ikuspegitik eta ikuspegi sozialetik”. Hitz hauekin laburbildu eta baloratu du Gipuzkoa Zero Zabor bilguneak Foru Aldundiak joan den astean aurkeztu zuen hondakinen plangintza. Gaineratzen dutenez, “Zero Zabor filosofiarekin bat egiten du erabat plangintzak”. Ordezkari politikoak ekarpenak egitera deitzen dituzte. Balorazio osoa eta igandeko ekimenari buruzko informazioa, gipuzkoazz.com web orrialdean.

## Oria garbitzeko aukera piraguaz, larunbatean

**O**ria ibaia garbitzeko deia egin du aurten ere, Puntapax Kanoe Kirol Elkartek. Ekainaren 16an, larunbata jarri du hitzordua, 9:30etan baina ez Zubietan. Santueneko Orbeldiko presa parera gerturatzeko gonbita luzatzen diete herritarrei. Piraguan ibili, tarte atsegi-

na igaro, eta bide batez, Oria ibaia garbitzea izango da ekimenaren helburu nagusia.

Iaz zabor asko jaso zutela eta, joan den azaroan izan ziren uholdeen ondorioz, antolakuntzatik adierazi dutenez, oraingoan, “zabor gehiago jasoko dugulakoan gaude”.



## KALEZAR

INMA BALDA

## Eguzkia gure gainean



**E**guzkia edo Ekia, nahi dugun bezala deitu diezaiogun, zeruko jaun eta jabe dugu urteko sasoi honetan. Inoiz baino gehiago Ekia gure gain gainean sentitzen dugu eta beraz, ondo baino hobeto jarri zioten gure arbasoek ekaina garai honi. Ondorengo egunetan Udaberriak Udari eman go dio paso, Naturak hala agintzen baitu. Eta guk, gizakiok jabetu ote gara horretaz? Bai, jakina! Arinago jantzi, azala airean eraman eguzkiaren igurtziak jaso ditzan, egunaren argi oparoaz disfrutatu... Gure ikasleek ikasturte honetan betebeharrak osatu eta bukatu dituzte, bakoitzak bere neurria, nola ez! Opor eta jai usaina non nahi. Argi dago, gutxiago edo gehiago guztiok jarriak gara talante horretan. Jaiak aipatu ditudala hemen ditugu ate joka gure sanjoanak. Bi asteburu luze aurrean, herriko lehen jaiak diren hauek ondoren etorriko direnei deiadarka. Kalezarko Jai Batzordea aspaldian dabil lanean nola josi atorra metro erdiko hariarekin: gero eta balio gutxiago duen txanponarekin guztiok aseko gaituen egitaraua osatzen. Ez dute lan makala izan, ez. Baina gogoak eta nahiak mendiak mugitzen dituela eta lortu dute bi asteburu ekitaldiz betetzea. Gutxi izango dituzte sei egunetako jaiak! Kalezar auzoak, txikia handien artean, sei egunetako jaiak eskaintzen ditu bertako eta ingurukoentzat. Denak ditugu lagun eta adiskide, beraz, luza dezagun gonbita eta goazen guztiok sanjoan ospatzera Kalezarrera.

## KALEBERRI

MADDI ZALDUA

## Udan, festaz blai!



**U**rtaroak, uda dela dio, baina nik ez diot sinesten. Non ezkutatu da udako eguzki bero hori? Euri zaparradek blai utzi gaituzte azken egun hauetan. Triste dago eguraldia, baina guk ordea eguzkirik ez dugun arren, badugu pozik egoteko motibo bat edo beste; badatoz udan gure herri eta inguruak ospakizunez betetzen dituzten festak. San Juan suaren garrak berotzen du dagoeneko Usurbilgo Kalezar. Asteburu honetan apunte eta lan guztiak sutan erre eta euren inguruan dantzatzeko zita paregabea dugu, beraz ez hutsik egin! Usurbilen hain kuttunak ditugun Santixabel festak ere gerturatzen ari dira pixkanaka. Nik jada entzuten ditut danbor hotsen doinuak eta gogo biziz naiz egun horiek goiz-goizetik gau arte aprobetxatzeko. Santixabele ordea, beste hainbat euskal festek hartzen diote lekukoa. Horrela uda osoan zehar herriz-herri eta festaz-festa ibiltzeko aukera eskaintzen digutelarik. Nik ez dut huts egiteko asmorik, eta zuk? Elkar ikusiko dugulakoan, ondo pasa eta gozatu!

## AGINAGA

LONTXO ZUBIRIA

## Boris eta Rumen Borisov



**B**oris eta Rumen aita semeak ditugu, Rosi eta Monikarekin osatzen dutelarik familia. Bulgariako 100.000 biztanleko Pernik hirikoak. Sofiatik 30 kilometrotara dago eta Itsaso Beltzetik 500 kilometrotara. Paisaia menditsua, udan 35 gradu baina neguan, -20 gradu ere egiten omen ditu. Hemengo janarira erraz ohitura dira, Euskal Herriko ardoa ona dela badakite baina beraien lurraldean ere oso ardo onak daudela diote; vodka, orujoa. Urtarrileko azken asteburuan, maskaradak antolatzen dituzte, oso ezagunak omen dira beraien esanetan, eta euskaldunik iritsi omen da jaialdi hartara. Rumenek parte hartzen du bertan, 20 zintzarri zintzilikatzen ditu soinean, 40 kiloko zama ibiltzen du bere hanken gainean. Maiatzaren 22an, Richterrek eskalan 5,8 gradurainoko lurrikara bortitza pairatu omen zuten bertan. Hildakorik ez baina familien etxeek kalte handiak izan omen dituzte. Egoera ekonomikoak behartuta etorri dira lan bila. Usurbilen bizi ostean, Zabaleta auzoan zoriontsu daude. Aginagan lan egiten dugu elkarrekin giro onean. Ahal duten guztietan beraien herrira itzultzen dira baina gure artera bueltatu orduko, lehen agurra beti euskaraz izaten dugu, euskararekiko duten maitasuna bistan geratzen delarik.



## ATXEGALDE

M<sup>A</sup> JESUS URBIETA

## Aupa kirola



**U**rteak daramatzagu Kiroldegira inguratzen haurrak, gazteak, helduak. Bada zaletasuna inguruan, batzuk igeri egitera joaten dira, gimnasia egitera, besteak beste. Gu 15 laguneko talde bat gara, astean hiru aldiz hurbiltzen gara bertara, gimnasia edo gorputzaren mantentze arloan lan ekintzak moldatzen ditugu. Leire dugu arduradun edo monitorea. Oso atsegina da eta ondo moldatzen gara. Txistu batean joaten zaigu ordubeteko saioa eta asko eskertzen diogu berari. Oraingoan taldekoak bazkari baten bueltan bildu gara eta ondo pasa dugu eguna. Azken txanpa bezala, berehala bukatzen baitzaigu ikasturtea. Beraz urrian izango dugu berriz horretarako aukera. Ondo izan eta ondo pasa oporraldia!



# Erraustegirik ez, Zubietarako biometanizazio planta proposatu du Aldundiak

**H**ondakinen errausketa eta egungo zabortegei ereduak baztertu eta herrialdea zero zabor norabidean jarri asmo duen hondakinen plan eguneratu bat aurkeztu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak, Ingurumenaren Nazioarteko Egunean, ekainaren 5ean. Egunotan jendaurrean aurkeztu dute.

Aurreikusi moduan hain zuzen, Batzar Nagusietan eta Kontsorzioko partaideen aurrean egin bezala, jendaurrean aurkezteko zenbait hitzaldi antolatu ditu Aldundiak egunotan. Lehena, joan den ekainaren 6an, Donostiako San Telmon. Ekitaldiak ikusmin handia sortu zuen, aretoa toperaino bete zen.

Hizlari lanetan, ingurumen diputatu Juan Karlos Alduntzin aritu zen eta harekin batera, hondakinen plangintza diseinatu zuten nazioarteko bi aditu; Laia Valenzuela eta Joan Marc Simon. Argitu nahi izan zuten lehen puntua zera da, hau ez dela plan berri bat, lehendik zegoena eguneratu eta garatu dutela adierazi zuten. Plan honen beharra lau arrazoiren bidez argumentatu zuten. Batetik, hondakinen sorrera aurreikuspenetan egon den aldaketaga-



SAN TELMO MUSEDAN EGIN ZUTEN PLAN EGUNERATUAREN AURKEZPENEA.

tik, espero bezala hondakin kopuruak gorantz egin ordez, %12 egin baitu behera. Bestalde, gaikako bilketarekin urrats eraginkorrak eman direla gogorazten dute. Hirugarren arrazoi gisa, legea aipatzen zuten, 2020rako zabortegeiak itxi eta hondakinak erraustea debekatzen duen Europako zuzentaraua. Eta azkenik, bizi dugun krisialdi ekonomikoaren ondorioz egin beharreko inbertsioak ondo aztertu beharra.

## Eredu eraginkorra, atez ate

Horrekin guztiarekin hondakinen kudeaketaren inguruko azterketa bat burutu dute, planaren gainerako edu-

kiarekin batera, gipuzkoaberri.net web orrialdean kontsulta daitekeena. Eta azterketa horretatik abiatuta, aurrera begirako hainbat egitasmo planteatzen dituzte.

Bilketa eredu eraginkorra, atez ateko bilketa dela diote. Bost edukiontzien sistema berriz, ez eraginkortzat jotzen dute. Tratamendurako biometanizazio edota konpostatze plantak proposatzen dituzte. Erraustegirik eta egun ezagutzen dugun zabortegeirik ez. Honekin guztiarekin, hondakinen sorrera murriztu, gaikako bilketa ahal bezain beste igo, eta erreusa ahalik eta gehien murriztea lortu nahi dute.

## Plan honetan aurreikusi diren egitasmo nagusiak

**Zubietan biometanizazio planta eraikitzea.** Beste bi txikiago Sasietan eta Urola Erdian.

**Sei konpostatze planta irekitzea,** Mankomunitate bakoitzeko bat (Debararrenan eta Urola Erdian izan ezik, bi mankomunitateok planta bakar bat partekatuko baitute).

**Ontzi arinentzako tratamendu planta eraikitzea** Zubietan.

**Erreusa ikertu eta aztertze gunea eraikitzea** Zubietan.

**2014. urtea amaitzerako,** Lapatx, Urteta eta Sasietako zabortegeiak itxi.

**Inbertsio guztiaren kostua:** aurreko planarekin alderatuta, **gastuak erdiraino murriztuko dira.**

**Helburua:** 2016an gaikako bilketa %60koa izatea, %75ekoa 2020an.

## Inbertsioen sakabanatzea

**K**ostuak erdira murriztuko dituen eta ekonomikoki jasangarriagoa izango den plana aurkeztu du Aldundiak. Honen arabera, Zubietak Gipuzkoako hondakinen kudeaketako inbertsio nagusi izateari utziko dio. Aurrekontuko inbertsioen %40 soilik bideratuko da Zubietara. Gainerakoa, herrialdeko puntu desberdinetara sakabanatuko da. Ez hori bakarrik, hondakinak tratatzeko Aldundiak ireki asmo dituen planta desberdinekin, gutxienez 120 lanpostu berri sortuko direla iragarri dute.

# Itoitz Rodriguez Errondosoro atletak urrezko denboraldia osatu du

**I**az, 1.000 metrotako proban Euskadiko txapeldun izendatu zutenetik lorpenak bata bestearen atzetik eskuratu ditu. Urezko bost domina edota brontzezko beste bat irabazi ditu jada amaitzean duen denboraldi honetan. Eta hori guztia, 15 urte betetzean dituen honetan. Itoitz Rodriguez Errondosoro usurbildarra denboraldi bikaina burutzen ari da Lasarteko taldearekin, gustukoena duen kirol jardueran; atletismoan.

**NOAUA!** Noiz eta nolatan hautatu zenuen atletismoan hasia?

**Itoitz Rodriguez Errondosoro.** LH 5. mailan hasi nintzen eta kirol erakarri bezala ikusten nuen. Korrika gustuko nuen eta aukeratu nuen. Orain arte jarraitu dut eta oso gustura nabil.



LASARTEKO TALDEAREKIN EGITEN DITU ENTRENAMENDUAK.

## ONENEN PARE

“Duela bi aste Espainiako Txapelketa jokatu nuen, selekzio autonomikoen artekoa. Hirugarren izan nintzen”

**N. Lasarteko taldean zabilta hasieratik?**

**I. R. E.** Ez, hasieran Udarrekin entrenatzen genuen. Azkenean jende gutxi zegoela eta, Lasartera joan behar izan nuen entrenatzera. Udarregiren izenean, aurreko urtean infantil mailan lehiatu nuen. Gero jada, federatuetan Lasarteko taldean. Nirekin beste bi usurbildar dabilta; Jon Ander eta Endika.

**N. Zer moduzko giroa duzue taldean?**

**I. R. E.** Taldean eta taldetik kanpo lagun onak egin ditut atletismo munduan eta oso pozik nago. Aurten, hiru

joan ginen Zaragozara Euskadiko selekzioarekin lehiatzera, lauk egin dugu Espainiako gutxiengoa. Aurten denboraldia oso ondo aterata da.

**N. Aurten ordea, lorpen bat baino gehiago jarraian etorri dira?**

**I. R. E.** Lehian, Gipuzkoako Txapelketa irabazi nuen 600 metrotan. Proba normal batean, taldeko batek “erbi” bezala tira zidan eta Euskadiko errekorra egin nuen 600 metrotan pista estalian; 1:26:19. Gero, gutxiengoa egin nuen 300 metrotan eta Euskadiko bigarren geratu nintzen. Martxoan Espainiako Txapelketan, finalerdia irabazi, finalera pasa eta finala nahiko gaizki irten zen. Bosgarren geratu nintzen. Gero kontzentrazioan, Saloura joan ginen entrenatzera. Aste Santutan beti joaten gara. Eta gero, aire libreko txapelketak hasi ziren. Gipuzkoako bost txapelketetan parte hartu dut. Bostak irabazi ditut. Duela bi aste Espainiako Txapelketa jokatu nuen, selekzio autonomikoen artekoa. Hirugarren geratu nintzen, oso pozik.

## “Gogor saiatuta emaitzak lortzen dira”

**NOAUA!** Ondo prestatu beharko zinen. Zer suposatu dizu guzti honek zeure eguneroko bizitzan?

**Itoitz Rodriguez Errondosoro.** Asko nekatu eta etxera kristoren nekearekin iristea. Ikusi dut merezi izan duela, egindako saiakera guztiak. Gogoa jarrita, entrenamendu saioetan gogor saiatuta emaitzak lortzen dira. Esperientzia polita izan da gainera.

**N. Lorpenetako batzuk jauziari loturikoak dira. Atletismoak jarduera desberdinetan trebatzeko aukera ematen du?**

**I. R. E.** Atletismoa ez da korrika bakarrik. Jauzia egiteko aukera duzu eta jaurtiketak ere bai. Aspektu guztiak lantzen dira; jauzia, abiadura, erresistentzia, indarra, malgutasuna... Dena lantzen da atletismoan.



## “Nik abiadura dut, baina ez dudana irteera da”

NOAUA! Zer modalitatetan sentitzen zara erosoago edo errendimendu altuena zeinetan duzu?

**Itoitz Rodriguez Errondosoro.** Errenditu 600 metroan ondoen, nire proba da. Euskadiko errekorra dut pista estalian eta ni oso gustura proba horrekin. 1.000 metrokoetan ere gustura aritzen naiz baina pixka bat luze geratzen zait. 100 metrokoa ondo dago, baina mantsoegia naiz.

**N. Proba motzak dira guztiak, arranke handia beharko da ezta?**

**I. R. E.** Bai, nik abiadura dut, baina ez dudana irteera da. Erritmo aldaketa behar da. Estrategiako lasterketak dira. Adibidez, Espainiako Txapelketan ez doaz aurrera denbora ona egiten dutenak. Agian daude lau serie, eta pasatzen dira serieko lehenengoak eta gero denbora onenarekin daudenak. Adibidez, atera daiteke lasterketa mantsoa eta gero zuk bukaeran ihes egiten baduzu eta lehenengo iristen bazara, nahiz eta denbora txarrena izan, finalera pasatzen zara. Atletismoko probak strategiako lasterketak izaten dira askotan.

### FUTBOLA ERE GUSTUKO

“Orain arte, futbola eta atletismoa partekatu izan ditut, baina aurten bat aukeratu behar eta atletismoan nabil”

**N. Lasarten gustura ibili arren, faltan botatzen duzu Usurbilen halako talderik ez egotea?**

**I. R. E.** Bai, beste herri baten izenean lehiatzen dut azkenean. Azkenean ohitu gara eta lagunak egin ditut. Ni gustura nago. Usurbilen ere gustura egon nintzen talde batean, baina Usurbilen egia esan ez dago lekurik atletismoan aritzeko.

**N. Zure eguneroko bizitzan nola antolatzen zara?**



ALTUERA JAUZIA ETA IRAUPEN LASTERKETETAN ARITZEN DA.

**I. R. E.** Entrenamenduetatik ez naiz oso berandu iristen; gero ikasten dut. Ezin dudala ikusten badut, entrenamendura joan baino lehenago ikasten dut, edo jangelan. Lekua bilatzen dut.

**N. Zure lorpenen aurrean, zer diote zure ingurukoek?**

**I. R. E.** Oso pozik daude baina inbidia pixka batekin, esaten diet atletismoan apuntatzeko baina ez dira animatzen. Ia guztiak futboleko dabilta, eskubaloian gutxi batzuk. Orain arte, futbola eta atletismoa partekatu izan ditut, baina aurten bat aukeratu behar eta atletismoan nabil.

Emaitza onak lortu ditut, aukeraketak beraz merezi izan du. Taldekideei eskerrak, batez ere entrenatzaileei, Oskar Goiko eta Amaia Andresi. Eta baita Gaizkari ere, hari ere asko zor diot. Lagunei, animatzeagatik eta familiari.

**N. Epe erdirako txapelketei begira zer aurreikuspen duzu, animu aldetik oso ondo ezta?**

**I. R. E.** Oso ondo. Euskadiko Txapelketa 300 metrokoa izango da, eta ondo geratzea espero dut, aurrean. Lehenengo edo bigarren edo domina lortzea behintzat.

Eta gero Espainiakoan ere, hori da helburua, domina bat irabaztea. Iaz baino jende gehiago eta maila altua egongo da, baina halere saiatuko naiz.


### Zarauzko Triatloia

Saltoki taldeko Mikel Otaegik Sbizikleta gaineko proba laugarren amaitu zuen. Baxurde Txikiko sei kideek ere parte hartu zuten proban. Hauek dira euren sailkapenak:

- 14-Mikel Otaegui Irastorza: 4:22:38.
- 32-Iñaki Añorga Unanue: 4:35:24.
- 40-Ion Korta Arregi: 4:36:55.
- 128-Andoni Labaka Lizarazu: 4:54:15.
- 272-Martin Larrañaga: 5:12:56.
- 390-Peio Sasiain Martinez: 5:30:00.

### Japonian da asteburu honetan Oiana Blanco

Usurbilgo judo taldeko Oiana Blanco eta bere entrenatzaile Esteban Arrillaga Japonian izango dira asteburu honetan. Oiana Joko Olinpikoetarako sailkatu da 48kg azpiko mailan, eta Japonian emango dio hasiera jokoetarako prestakuntza espezifikoa. Ondoren Castelldefells, Alemania eta Madrilen jardungo du.



UDA HONETAN LONDRESEKO JOKO OLINPIKOETAN ARITUKO DA.

## Zumarteko ikasleen emanaldiak, ikasturtea bukatzeko

**2**012-2013 ikasturteko matrikulazio epea igaro ostean, udako oporraldian murgildu aurretik denboraldi amaierako kontzertuak eskainiko dituzte Zumarte Musika Eskolako kideek. Abesbatzek, instrumenturen batean trebatzen ari diren ikasleek edota sortzen joan diren taldeek parte hartuko dute, datorren astelehenean, ekainaren 18an hasi eta hilaren 22ra arte luzatuko diren kontzertuetan.

### Ekainak 18, astelehena

19:30 "The Astelehen's" eta Ganbarakada taldeak Sutegiko auditorioan.

### Ekainak 19, asteartea

16:00 Zumarte Txiki eta Zumarte Abesbatzak, klarinete bikotea eta biolin-flauta taldeak Sutegiko auditorioan.



ZUMARTEKO GAZTE KANTARIAK, HONDARRIBIRA EGINDAKO IRTEERA BATEAN.

### Ekainak 20, asteazkena

18:30 Talde instrumentalen emanaldia Sutegiko auditorioan: trikitixa taldeak, Gitarra Taldeak, Saxo Taldea, Piano bakarlariak.

### Ekainak 21, osteguna

18:00 Musika Txokoko ikasleen

emanaldia Udarregi Ikastolan.

### Ekainak 22, ostirala

19:00 Zumarte Gazte Abesbatza Kalezarreko ermitan.

**Antolatzailea:** Zumarte Musika Eskola.

## Kantu taldekoen opor aurreko azken entsegua, Mikel Markezekin

Ikasturtea amaitzear dute Euskal Kantu Taldekoek. Baina aurretik bi hitzordu antolatu dituzte. Lehena, datorren astearterako, ekainaren 19rako. Ezohiko saioa izango da. Beti bezala, ez da Udarregi Ikastolan burutuko, Artzabalen baizik. Hori bai, betiko ordutegian, 18:30-19:30 eta gonbidatu berezi batekin gainera; Mikel Markez abeslariak girotuko baitu ekitaldia.

"Mikel Markez kantari ezagunak lagunduko gaitu kantuan. Euskal kantuen nondik norakoa aurkeztuz eta bukaeran, lagunarteko solasaldia izango da mokadu goxoen inguruan", ohartarazi dute antolatzaileek. Ikasturtea, Santixabelen baitan ekainaren 30ean ospatuko den kantu-zikloro janarekin amaituko dute.



DATORREN ASTEARTEAN, ARTZABALEN IZANGO DA ENTSEGUA.

## Afrikarako laguntza bilketa, Udarregin


Iaz bezala, aurtien ere Afrikarako materiala jasoko du Udarregi Ikastolak. Gobernu Kanpoko Erakundea den S.O.S. Afrikaren eskutik, arropa eta oinetakoak biltzeko kanpaina martxan da. Oinetako eta arropa bilketa, ikastolako erdiko aretoan burutuko da, ekaineko lehen hamabostaldi honetan.

### Goizeko zaintza

Datorren ikasturtean ere Udarregi Ikastolak "Goizeko Zaintza" izeneko zerbitzua eskaini asmo du Agerialden. Goizero, 8:00etatik 9:00etara. Ekainaren 22a baino lehen apuntatu beharko dira ikastolako idazkaritzan. "Epea amaitu ondoren taldea osaturik badago, ez da ikasle gehiago onartuko. Zerbitzuaren kostuari dagokionez, erabiltzaile kopuruaren arabera zehaztuko da".

# 2012 N!! San joanak

*gehigarri berezia*



## Jaiak hasteko, auzotarrak lehia sanoan

**A**uzokideak desafio betean, baina giro onean noski, ikusi ahal izango ditugu ostiral honetan, ekainaren 15ean. Jai Batzordeak proposaturiko hainbat jokoetan duten abilezia eta ondo pasatzeko gogoia proban jarri behar ko dituzte.

Aipatu moduan beraz, aurten ere jai parte hartzaileak izango ditugu Kalezarren. Inguruotako festa denboraldiari hasiera emango dioten San Juanetan, auzokideek euren arteko jokoez gain, primeran pasatzeko beste hainbat hitzordu ere izango dituzte. Tartean, hilaren 22an, arratsaldeko 17:00etatik aurrera ospatuko den patata tortilla lehiaketan. Azken erabakia epaimahaiarena izango da. Ez dute lan makala izango.

**Haurren Eguna, igandearekin**  
Jokoak aipatuta, ezin ahaztu etxeko txikienez. Jai guztietan aparteko egun bat izaten dute haurrek. Kalezarren, igande honetan, ekainaren 17an ospatuko dute. Jolasak goizez, tailerrak arratsaldez, buruhandien bueltan gora eta behera korrika aritu... Eta korrika aipatuta, goizean hurrei zuzenduriko IX. Krosa ospatuko da, 10:00etatik aurrera. Indarrak ahitu arteko egitaraua prestatu dute Jai Batzordekoek. Baina indar berritzeko aukerarik ere izango dute gaztetxoek, txokolate gozoa dastatu ahal izango baitute.

**Oilasko biltzera larunbatean**  
Haurren ekitaldiz hornituriko igande bezpera, larunbat honetan Oilasko Biltzaileen Eguna izango da Kalezarren. Bi irteera programatu



OSTIRAL HONETAN HASIKO DIRA FESTAK KALEZARREN.

dituzte antolatzaileek; helduena lehenik, goizeko 6:00etan gosaldutik ostean. Eta baita haurrena ere, 9:00etan. Nahi duten guztiak gero, bazkaritarako bilduko dira. Baina adi, otordurako txartelak erosteko epea igaro baita. Jai Batzordeak lehengo astean zehar finkatu zituen txartelak eskuratzeko hitzorduetan.

**ANDER ARANZAZISTROKI**

**industri garbiketarako sistema eta produktuak**

*Ondo pasa San Joanetan!*

**Goieko**

INDUSTRIA GARBITASUNERAKO SISTEMA ETA PRODUKTOAK

 **667 680 236**

*Ondo pasa San Joanak!!*

izagirrelektrizitatea@hotmail.com

**izAgirre**

**ELEKTRIZITATEA**

Goiz Argi etxea, 37 kalezar

Telf.: 943 36 50 95

Mugikorra.: 609 068 111

Faxa: 943 37 65 87

## Asteburuarekin piztuko da San Juan Sua

**S**an Juan bezpera eta eguna asteburuan egokitu dira aurtentzen, larunbat eta igandearekin hain zuzen. Aste tartean ohikoa den biharamuneko zereginen ardurarik izan gabe, beste lasaitasun batez gozatu ahal izango dute askok, San Juan sua piztuko den gauaz.

Suaren gaintetik salto egitea, paper zatitxo batean desioaren bat idatzi eta sutara botatzea... Erritu hauek egingo dituenik izango da aurtentzen ere. Inguruotan landa eremuan baina baita auzuneetan ere, San Juanetako su argia nonahi ikusi ahal izango da hurrengo asteko larunbatean. Baita Kalezarren ere. Gaueko 22:00etan piztuko dute. Ekitaldia, bazkalostetik eskean irtendako bertsolari, trikitilari eta auzotarrek girotuko dute. Usadio zaharrari jarrai-



BERTSOLARIEK ETA TRIKITILARIEK GIROTUKO DUTE SAN JUAN SUA.

tuz, eskeak goizaldeko ordu txikiak arte jarraituko du.

### Jan edana, San Juan egunez

San Juan bezperako ajea kentzeko, jan edana prestatu dute Jai

Batzordekoek hilaren 24rako. Sardina eta sagardo dastatzea, eta ekitaldi honekin amaituko dira hain zuzen, aurtentzen festak. San Juan Egunerako, toka txapelketa, Gorritiren Showa edota soka dantza ere iragarri dira.



Ondo pasa San Joanetan!

**SAIZAR**  
Sagardoa • Sidra Natural

Dasta ezazu gure  
Sagardoa

[www.sidrassaizar.com](http://www.sidrassaizar.com)

# Bi asteburu, hamaika ekitaldi

## Ekainak 15 ostirala

18:00 Buruhandiak.

19:00 Auzotarren arteko jokoak.

23:30 Besteik Pe.

Ondoren: Joxpa taldearekin dantzaldia.

## Ekainak 16 larunbata Oilasko Biltzaileen Eguna

06:00 Gosaria eta oilasko biltzaileen irteera.

09:00 Oilasko biltzaile txikien irteera.

14:00 Oilasko biltzaileen bazkaria.

16:00 Musa (izen ematea 16:30etan itxiko da).

18:00 Herriko dantzariak.

00:00 DJ Van.

## Ekainak 17 igandea, Umeen Eguna

10:00 IX. Ume Krosa.

11:30 Jolasak.

16:30 Tailerrak.

18:00 Txokolatada.

Ondoren, buruhandiak.

19:00 DJ Burundarekin dantzaldia.

## Ekainak 22 ostirala

17:00 Tortila patata lehiaketa.

19:00 Zumarte Abesbatzaren emanaldia.



MENDEKU ITXUA TALDEKOKAK EKAINAREN 22AN ARITUKO DIRA KALEZARREN.  
ARGAZKIA: IBAI ARRIETA.

23:00 Urrezko Muxkerrak, Hotzikara, Mendeku Itxua, Itzartu.

## Ekainak 23 larunbata, San Juan bezpera

15:00 San Juan eskearen irteera.

22:00 San Juan sua.

Ondoren, eskearen jarraipena.

## Ekainak 24 igandea, San Juan eguna

11:30 Meza Nagusia.

Ondoren, toka.

13:00 Gorritiren Showa.

18:00 Buruhandiak.

19:00 Soka Dantza.

Ondoren, sardina eta sagardo dastaketa Saizar Sagardotegiaren eskutik.

## Herriko musika taldeen gaua, ekainaren 22an

Musika jai guztietako osagai garrantzitsuetakoa da, eta Kalezarren ere hainbat hitzordu programatu ditu Jai Batzordeak. Besteik Pe eta Joxpa taldeen edota DJ Van eta DJ Burundaren saioez gain, ekainaren 22ko gauerako, herriko musika taldeen maratoni gauaz gozatu ahal izango da. Kalezarko oholtzara igotzen lehenak, Urrezko Muxkerrak taldea izango da. Haien atzetik, Hotzikara eta Mendeku Itxua taldeek joko dute. Gaua Itzartu taldeak borobilduko du. Egun berean baina arratsalde, ikasturtea agurtzeko Zumarte Musika Eskolakoak hurrengo egunetan zehar eskainiko duten kontzertu sortaren baitan, emanaldietako bat Kalezarren eskainiko dute.



- komertzial instalazioak
- beira bikoitza · segurtasun beirak
- dutxa-itxiturak eta irristailuak · ispiluak
- barandak · kristal mota guztiak...

943 37 17 33- 610 45 93 45

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA



LARRAÑAGA  
PLASTIKOAK E.A.

INDUSTRIARAKO  
PIEZA MOLDAKUNTZA

Ugaldea industrialdea, 1. USURBIL  
Telf: 943 36 14 46 / 943 37 33 05  
Fax: 943 37 70 01  
admon@larranagaplasticos.com

Josue  
Igeltseritza

Fatxaden estaldurak  
Estalkien berriztatzeak  
Barruko berrikuntzak  
Gremioen koordinaketa

606 37 21 05

Ondo pasa  
San Joanetan!

Igeltseritza orokorra

Fax: 943 24 34 60  
Atallu pol. atallu, 28  
20170 - USURBIL

josueigeltseritza@euskalnet.net

USURBILGO  
HAUR ESKOLA



ondo pasa San Joanetan!

© 943 37 40 61

22ko gauean, ostirala:  
Kilometroak 2012  
abestiaren aurkezpena  
Laket eta La Jodedera

23ko gauean, larunbata:  
Xutik eta La Pulquería,  
Ingo al Deu, Joseba Tapia

24ko gauean, igandea:  
Gozo-Gozo, Zea Mays,  
"R", Gora Gora Kids

25eko gauean, astelehena:  
Gaztejai diskoteka

San  
Juanak  
2012

andoain

San Juanak Andoain  
ekainaren 22tik 26ra



## Euskara eta aisialdiko diru-laguntzak eskatzeko epea ireki da

**D**atorren astelehenean, ekainaren 18tik aurrera euskara ikasi eta UEUko edota aisialdiko begirale izateko ikastaroren bat egin duten herritarrek, udal diru-laguntzak eskatzeko aukera izango dute. Epea, ekainaren 29ra arte irekita egongo da.

Euskara ikasten aritu direnek bi baldintza nagusi bete beharko dituzte; batetik, Usurbilen erroldatua egotea eta gutxienez, jasotako klaseen %80ra joan izana. Deialdi honetan parte har dezakete:

-Euskara ikasleak: matrikula kostuaren %80 itzuliko zaie.

-12 urtetik beherako seme-alabak dituzten gurasoak: matrikulazio kostuaren %100 itzuliko zaie. Familia-liburuaren fotokopia aurkeztu behar da.

-Langabetuak: matrikulazio kostuaren %100 itzuliko zaie, ikastaroak irauten duen denboraren erdia gutxienez langabezia egon direnei. Langabezia egoera Gizarte Segurantzako "Lan historiala" deritzan ziurtagirien bidez egiaztatuko da. Ziurtagiri honek diru-laguntza eskatu den ikastaroaren epealdi guztia hartu behar du bere baitan.

-UEUko ikasleak: matrikulazio kostuaren %60a jasoko dute. Egoitza gastuetarako ez da diru-laguntzarik emango.



EKAINAREN 29AN AMAITUKO DA ESKAERAK AURKEZTEKO GARAIA.

### Ikastaroen ordeza, laguntza

Diru-laguntza deialdi berria dute bestalde, aurtengoan; aisialdirako begirale edo zuzendari titulua lortzeko joan den udazkenetik hona ikastaroa burutu dutenentzat hain zuzen. Usurbilen erroldatuak daudenei, matrikularen erdia itzuliko zaie. Begirale titulua atera dutenei gehieenez jota 250 euroko laguntza emango zaie, 150 eurokoa zuzendari titulua eskuratu dutenei. Laguntza hauek, orain arte Buruntzaldeko udalek alor honetan antolatzen zituzten ikastarorak ordezkaturiko dituzte.

Laguntza hauetarako eskaerak ekainaren 18tik 29ra aurkeztu ahal izango dira udal erregistroan. Oinarri buruzko informazioa edo argibide gehiago jaso nahi dituenak aldiz, Potxoenean kokatzen den Euskara Zerbitzura jo beharko du edo bertara deitu; 943 371 999.

Udal diru laguntza hauen oinarriak astelehenean kaleratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

### Aginagako udako txokoak, azken epea: ekainak 15 ostirala

**O**stiral honetan, ekainaren 15ean itxiko da Aginagako udako txokoetan izen emateko epea. San Praixku Guraso Elkarteak antolaturiko ekimenean apuntatu nahi dutenek honako telefono zenbaki hauetara deitu behar dute: 600 484 948 (Manuel) edo 650 011 933 (Mari Jose). Txokoak uztailearen 2tik 30era burutuko dira, goizez, 10:00-13:00 artean.

### Udala eta herritarren arteko azken bilera, astelehenean

**U**dalak entzuten zaitu, asteotan Usurbilgo Udalak herritarrekin auzoz auzo burutu duen bilera erronda azken txanpara heldu da. Aginaga, Txokoalde, Santuenea, Zubieta eta Kalezar igaro ostean, Kaxkoan burutuko da azken bilera, datorren astelehenean. Herritarrek gobernu taldekoen azalpenak entzuteaz gain, proposamen eta iritziak eman ahal izango dituzte, ekainaren 18an, 19:00etatik aurrera Potxoenean burutuko den ekitaldian.

**USURBIL AUTOAK**  
-TAILERRA - KARROZERIA - KOTXEEN SALMENTA

 **SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!!**

**zerbitzu ofiziala**  
Zumartegi industrialdea

 **943 36 10 79**

**txirriStra**  
TABERNA



-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

## Larunbat honetan, Eskubaloi Eguna Oiardo kiroldegian

**D**enboraldia borobiltzeko Eskubaloi Eguna antolatu du Usurbil Kirol Elkartek, larunbat honetarako, ekainaren 16rako. Goiz eta arratsalde, jokalaritalde desberdinak lehia jarriko dituzten neurketak ospatuko dira Oiardo Kiroldegian eta frontoian.

“Aurten jokatzen ibili diren jokalaririk, beste urteetan ibilitakoak, gurasoak, entrenatzaileak eta klubeko ordezkarituztiak elkartu eta egun polit bat ospatu nahi dugu”, ohartarazi dute. Eguna amaitzeko, afaritarako bilduko dira Aginaga sagardotegian. “Denak gonbidatuta zaudete afaltzera, gurasoak, eskubaloian lehen ibilitakoak, orain dabiltzanak edo ongi pasatzera animatzen den edozein”, luzatu dute gonbita Usurbil Kirol Elkartetik.



AFARI BATEKIN BOROBILDUKO  
DUTE ESKUBALOI EGUNA.

### AMAITZEKO, AFARIA

“Gurasoak, eskubaloian lehen ibilitakoak, orain dabiltzanak... Afarirako deialdia irekia da”

Sagardotegiko menua dastatu ahal izango da otorduan. Kafea barne, infantil, kadete eta jubenil mailako jokalariek 20 euro ordaindu beharko dituzte, gainerakoek 28 euro. Txartelak aldeztu aurretik, tabernetan salgai jarriko dituzte. Afalostean, denboraldiko jokalarit onenen artean sariak banatuko dituzte.

### Ekainak 16 larunbata Eskubaloi Eguna

- 11:00 Infantil-alebin neskak frontoian.
  - 12:00 Infantil-alebin mutilak frontoian.
  - 15:30 Jubenil mutilak eta entrenatzaileak Oiardo Kiroldegian.
  - 16:20 Kadete-jubenil neskak Oiardo Kiroldegian.
  - 17:10 Senior-beterana neskak Oiardo Kiroldegian.
  - 18:30 Senior-beterano mutilen triangularra Oiardo Kiroldegian.
- Gauean**, afaria Aginaga sagardotegian eta jokalarit onenen sari banaketa.

### Irisasi BTT

#### elkartearen ekipazioa

**M**endiko eta errepideko txirrindularitzako ekipamendua prestatu du Irisasi BTT bilguneak. Interesdunek ostiral hau, ekainaren 15a dute eskaerak egiteko azken eguna, andatzabtt@hotmail.com helbidean edo 687 858 477 telefono zenbakian. Informazio gehiago: andatzamendizale.info

### Igandean, Nazioarteko Gomazko Paleta Txapelketa

**G**urpildun aulkian aritzen diren jokalariek asteburu garrantzitsua dute aurretik. Nazioarteko Gomazko Paleta Txapelketa jokatuko da Erreterian eta Usurbilen. Frantsesak, valentziarrak eta euskaldunak arituko dira aurrez aurre. Lehen jardunaldia Erreterian izango da larunbatean eta, bigarrena, igandean Usurbilen. Partehartzaileen artean dira Beñat Lizaso eta Andoni Aizpeolea usurbildarrak. Goizeko 11:30ean hasiko da eta 13:30ak arte iraungo du (euria egingo balu, Zubietan jokatuko litzateke).

### Usurbil Cup

**A**ste honetan, jardunaldiak Aizan dira asteartean eta asteazkenean. Asteburu finalerdiak jokatuko dira eta ekainaren 23an finalak.

 **Kima**  
MASAJE LEKUA  
·KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA  
· KOLONAREN HIDROTERAPIA  
Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

**Javier Orbegozo**  
·ITURGINTZA  
·GASA ·BEROKUNTZA  
659 602 789  
943 37 29 37  
Erreka-txiki 13, 3. esk USURBIL

**Patri Jatetxea**  
  
K/nagusia 14. © 943 362 725

## Usurbil FT-koen jai eguna larunbatean, denboraldia agurtzeko



BESTEAK BESTE, "USURBIL FT TXOKOAK" ANTOLATU DITUZTE AURTEN.

**D**enboraldiko asteburu etako dinamika alboratu eta jai giroan murgilduko da Usurbil FT larunbat honetan. Klubaren Eguna ospatuko dute, futbolari, entrenatzaile, zaletu eta zuzendaritza taldeko kideek. Goiz eta eguerdi partean, azken aldiz bisitatu ahal izango da futbol taldeen bilgunearen historia errepatatzen duen erakusketa. Ostegunaz geroztik zabalik dago Sutegiko aretoan.

Usurbil FT-ren materiala, klubari loturiko artikuluak, argazkiak... Bilgunea 1976an sortu zenetik gaur egun arteko historia jasotzen du. Ostegun eta ostiral honetan, 18:00-20:00 artean egongo da zabalik eta baita larunbat goizez ere. Larunbateko jaialdian bestalde, jokoak, Usurbil Cup txapelketako finalerdiak, lagun arteko partidak edota klubekoentzako afaria antolatu dituzte. Hona hemen egitarau osoa:

**Erakusketa, jolasak, partidak, triki-poteoa, afaria...**  
11:00-13:10 Usurbil FT-ren erakusketa Sutegin.

Goizean zehar, Usurbil Cup txapelketako finalerdiak Kiroldegian.

15:30 Futbol Eskolako eta alebinezako umeekin jolasak herriko frontoian eta Mikel Laboa plazan (15:15etan hurbildu daitezela plazara).

17:00 Futbol Eskolako eta alebinezako umeentzako txokolate jana Benta tabernaren eskutik.

17:30 Nesken areto futboleko partida frontoian.

18:15 Mutilen areto futboleko partida frontoian.

19:30 Mikel Laboa plazatik abiatuta, triki poteoa herriko trikitilariekin (Benta, Txiriboga, Bordatxo eta Artzabal tabernen eskutik).

21:15 Klubeko jokalarientzako afaria Agerialden (Salazarri omenaldia egingo zaio bertan).

Antolatzaila: Usurbil FT.

### Usurbilgo Pilota

#### Txapelketa, azken txanpan

##### JUBENILAK, FINALAURREKOAK

##### EKAINAK 23 LARUNBATA

Goizeko 11:00etan, Usurbilen

Labaka - Iruretagoiena (Bidegoien)

Hernandez - Flores (Oiartzun)

##### EKAINAK 24 IGANDEA

Goizeko 11:00etan, Usurbilen

Zendoia - Imaz

Inda - Untxalo (Baztan)

##### NAGUSIAK, AZKEN LAURDENAK

##### EKAINAK 16 LARUNBATA

Goizeko 11:00etan, Aginagan

Esnal - San Sebastian

Katalina - Uzkudun

Urmeneta - Elola

Santxo - Altuna

##### EKAINAK 17 IGANDEA

Goizeko 9:30ean, Usurbilen

Azpiri - Zubiri

Jauregi - Lukin

Apezetxea - Perosanz

Berroso - Senperena

### Paleta Goma Txapelketa, datozen jardunaldiak

#### NESKEN TXAPELKETA

Asteburu honetan partidarik ez.

#### MUTILEN TXAPELKETA

##### 3. JARDUNALDIA

**Ekainak 17 igandea Usurbilen, 17:30h**

Xabier Murua - Jon Olaizola

Iban Arruti - Haritz Harreguy

Unai Loidi - Josu Errekondo

Enrike Huizi - Jokin Zubiaur

Igor Alkorta - Eneko Arregi

Oidui Usabiaga - Mikel Ibarreta

Imanol Esnaola - Xabier Errasti

Josu Arruti - Manuel Galarraga

Andoni Errazkin

**Xukin**  
igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

**USURBIL**

☎ 663 08 76 71 • 943 24 34 65

**Otar-Goxo**  
Elizkarguak

Zubiaurrenea, nº2

☎ 943 36 55 81

20170 Usurbil

**Aliprox**

kale Nagusia 10, USURBIL

943 361182

**JUANTXO**  
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8

☎ 943 370 008



## Agenda!

### Ekainak 15 ostirala

San Juan jaien hasiera Kalezarren, (ikus 12-14 orrialdeak).

### Ekainak 16 larunbata

- Oria garbitzeko deialdia, 9:30ean Orbediko presa parean, piraguarekin.  
- Eskubaloï eguna, 11:00etatik aurrera kiroldegian (ikus 18 or.).  
- Usurbil FT jaia, 11:00etan erakusketa Sutegin (ikus 19 or.).

### Ekainak 19 asteartea

Kiki, Koko eta Moko pailazoak 17:00etan frontoian. NOAUAREN eskutik.

## Goardiako farmaziak

Ekainak 14, osteguna  
De Miguel, Kale Nagusia 32 Lasarte

Ekainak 15, ostirala  
Rodriguez, K. Nagusia 42 Lasarte

Ekainak 16, larunbata  
Gil, Kale Nagusia 24 Lasarte

Ekainak 17, igandea  
Gil, Kale Nagusia 24 Lasarte

Ekainak 18, astelehena  
Gil, Kale Nagusia 24 Lasarte

Ekainak 19, asteartea  
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Ekainak 20, asteazkena  
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Ekainak 21, osteguna  
Rodriguez, K. Nagusia 42 Lasarte

Ekainak 22, ostirala  
De Miguel, Kale Nagusia 32 Lasarte

Ekainak 23, larunbata  
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Ekainak 24, igandea  
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

\* Larunbatetan, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ  
Echeveste, Elkano kalea 9, behea Hernani  
Telefono zenbakia: 943 552 087.  
Urte osoko egutegia jasotzeko bidali FARMA  
25600 zenbakira (1,39 BEZ barne)

## Datorren astean, Lanbide Prestakuntza Programen erakusketa Sutegin

**H**asierako Lanbide Prestakuntza Programak Usurbilgo Udalak antolatzen ditu. Bertan, bi lanbide jorratzen dira: ile-apainketa laguntzailea eta sukaldarizerbitzari langilea. 15 eta 18 urte bitarteko 51 gaztek parte hartzen dute Atallun kokatuta dagoen ikastetxean.

“Ikasturtean zehar, ikasleek buruturiko lanak Usurbilgo herriari erakutsi nahi dizkiogu. Era horretan, gazteek egindako lanak eta ekintzak plazaratu nahi ditugu”, adierazi digu Prestakuntza Programetako kudeatzaileak.

Erakustaldiak bi alde izango ditu: argazkiez jositako panelak ikusgai ipiniko dituzte eta, era berean, erakustaldi praktikoa egingo dira Sutegin ber-



EKAINAREN 18AN, 19AN ETA 20AN IZANGO DIRA ERAKUSTALDIAK.

tan. “Gerturatzen diren herritarrak ilea orraztu eta pintxo gozoak probatzeko parada izango dute”.

### Eguerdiko ordutegiarekin

Erakustaldia hiru egunez luzatuko da: ekainaren 18a astelehena, ekainaren 19a asteartea eta ekainaren 20a asteazkena, Sutegin. Goizeko 11:30etik 13:30ak bitartean.

## Ekainean zehar, beste bi erakusketa Sutegin

Artzabalgo pintura ikastaroko ikasleen lan erakusketa:  
Epea: ekainak 21-25.

Ordutegia: ostegun eta ostiralean, 17:00-20:00 artean; larunbatean, 10:00-13:00 eta 17:00-20:00 artean; igandean, 10:00-13:00 artean.

Zirriborro Tailerreko ikasleen lan erakusketa:  
Epea: ekainak 26-uztailak 3.  
Ordutegia: 11:00-13:00 / 18:00-20:00.

## Sexualitatea aztergai Aginagan

Sexualitateak adin bakoitzean bere bereizgarritasunak izaten ditu, ez hobeak eta ez okerragoak. Gai honen inguruan tertulian aritzeko jubilatuei zuzendutako bi zineforum antolatu dira Santuenean eta Aginagan.

Santuenekoa astelehenean izan zen, Aginagakoa ekainaren 20an asteazkena izango da, apaizaren etxe azpiko lokalean, arratsaldeko 17.30ean hasita. Antonia filma proiektatuko dute.

**LATAILLADE**  **ITURGINTZA**

Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua

Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021

**Jose Aizpurua**  
**Unanue eraikuntzak S.L**  
teilatuak eta fatxadak

943 37 38 79 - 620 80 01 86

Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA



# PLIS PLIS TXINLO ETA JOLAS



Kiki, koko eta Moko  
pailazoak

Ekainak 19, 17:00h  
frontoian

Noaua!!  
[www.noaua.com](http://www.noaua.com)



Urdaitza Librea



Gipuzkoako Foru Erkidegoaren Foru Arloko Departamentua

# EDERTU ZAITEZ!

**LOLI LIZARRALDE**  
ESTILISTA



**L'ORÉAL**  
PROFESSIONNEL

**INOA**  
Kolorazio sistema berria!

Zubiaurrenea, 5B USURBIL 943 361 971

**Jwar**  
ESTETIKA



**DNA berehalako beltzaranketa**  
5 minututan, %100 naturala

**solarium BERTIKALA**  
(eguneratua, errebisio guztiekin)

**BONU BEREZIAK**

munalurra 2, Usurbil 943 571 680



**Ane**  
ILEAPAINDEGIA

*Artzabal*

**JUBILATUENTZAT**  
**AUKERA ONENA**

artzabal baserria 626603600

**MASZADA**  
NATURAL THERAPY

**INTZA**  
ILEAPAINDEGIA  
ESTETIKA ZENTROA

**UDABERRI HONETAN...**  
Bolumena, pisua, moldeaketa, erreafirmazioa eta tonifikazioa lantzen dituen bi tratamendu ezin hobek ekarri ditugu:

**Revolution**  
Zelulitis (Entxarkatiba, edematosoa, fibrosoa, enkistada) lantzen duena.

**MINCEUR INTENSIVE**  
Gizentasun morbidoa eta menopausia lantzeko.

Kalitatezko produktuekin estilismoa eta estetika lantzen ditugu

Egun oso irekita! Nagusia 8, USURBIL 943 36 36 41



**Elexpés**  
ileapaindegia



Betileen tintaketa eta permanentea

Estetika • Tatuaiak

Zutikako eta etzandako Solariuma

Muna Lurra 12. ☎ 943 370 462

**GOLDWELL**  
**ELUMEN**

**m**

ileapaindegia

**mistoa**

Kolorazioetan teknika berriak eta iraunkorrak

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951